

KONTROL MOZIOA

Zabaltza Groseko jubilatuen elkarteari emandako soluzioaren inguruan

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko martxoaren 16an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Groseko Zabaltza jubilatuen elkarteak azaroan jaso zuen Zabaleta kalean lau hamarkadaz erabilitako lokala uzteko agindua, abenduaren 22a epe muga gisa ezarriz. Erabaki horrekin batera Udalak proposatutako alternatibak, Nafarroa Beherea plazan kokatutako lokalak, gutxieneko baldintzak betetzen ez zituela adierazi zuten hasieratik Zabaltzako kideek, tabernarik ez izanagatik eta espazio oso murrizta izanagatik, baina lokal honetan elkartearen jardunarekin jarraitzeko saiakera egitea erabaki zuten, ardura handia erakutsiz eta, beti ere, Nafarroa Beherea plazakoa behin behineko aukera gisa ulertua.

Otsaila hasieran halaxe irakurri ahal izan genuen komunikabideetan eta Udalak ateratako prentsa oharrean: “Udalak irtenbide bat eskaini dio Groseko Zabaltza jubilatuen elkarteari”; hala, Donostiako Udalak elkartearen eta BSiete ostalaritza lokalaren arteko akordioa bultzatu eta erraztu zuen. Martxoko batzordeetan Gizarte Ekintzako zinegotzi delegatuak adierazi zigunez, Udalak Zabaltzari egindako 50.000 euroko dirulaguntza zuzena baliatuta, jubilatuen elkarte hilabetero 5.000 euro ordaintzen ari da BSiete ostalaritza establezimendu pribatuari, beheko lokala erabili eta elkarteko bazkideentzat prezio bereziak eskaintzearen ordainetan. Alkatearen hitzetan, “konponbidea erraza ez bazen ere, erabiltzaileak poztu dituen baliabide bat aurkitu ahal izan dugu, promesa hutsetan erori gabe, irtenbide erreal eta eraginkorrekin”; tamalez, jakin ahal izan dugu jubilatuen elkarteko kideak ez daudela batere konforme Bemingham kaleko 7. zenbakian dagoen lokalarekin, ez eta ostalaritza negozioarekin egindako hitzarmenarekin ere. Beheko solairuan dagoen lokal honen ezaugarriak eta tabernaren jantokia zein beheko lokala erabiltzeko baldintzak ez dira egokienak, eta hori kontuan hartuta, hilabetero ordaindu beharreko prezioa, zalantzaragarria, zer eta diru publikoaz ari bagara.

Horregatik guztiagatik, uste dugu Udalak bultzatutako hitzarmen hau, gutxienez, berrikusi egin behar dela, Zabaltza jubilatuen elkartearen jarduna ahalik eta gehien zaintze aldera, eta diru publikoaren gastu zentzuzkoa bilatzeko; zentzu horretan, formalki BSiete tabernaren eta Zabaltza jubilatuen elkartearen arteko kontratu pribatu batez ari garen arren, Udalak bultzatutako akordioa den heinean, uste dugu Udalak zeresan handia duela hitzarmen honen berrikuspenean. Ezin dugu ahaztu, bestetik, Zabaltza jubilatuen elkarteak, zeina Gros bezalako auzo zahartu batean topaketarako eta harremanetarako funtzio ezinbestekoa burutzen duen, haren jarduna modu duinean garatzeko behin betiko kokalekua topatzeak urgentzia izaten jarraitzen duela.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aztertu dezala Zabaltza elkarteren jarduna garatzeko baldintzak betetzen ote dituen BSiete tabernaren beheko solairuko lokalak, irisgarritasunari, segurtasunari edota jarduera-lizentziari dagokionean.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Zabaltza elkartearekin BSiete taberna erabiltzeko kontratua berrikusi dezala, hark bultzatutako akordioa izan den heinean.
- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Zabaltza jubilatuen elkartearen behin betiko kokalekua bilatu dezala, elkarteko kideek proposatutako lokalak aztertuz.

Donostian, 2026ko apirilaren 24ean

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia